



GROTTE
DES
SARAKO
LEZEAK

JAKIN BEHAR DUZUN GUZTIA SARAKO LEZEAK BISITATU AINTZIN !

DENBORAZ KANPOKO BISITA, INGURUNE NATURALA BABESTU BATEAN

Larrun pean eta Donibane Lohizunetik 15 kilometrotan.

Lurraren sakonetan egindako 45 minutuko bisita gidatu baten bidez, ezagutu urak zizelkatu duen bitxikeri geologikoak eta sentitu gizakiak naturarekin batu dituen milaka urteko lotura hori !

SARBIDEA

Autoz : A63 Autobidetik, Baiona, Miarritze edo Donibane Lohizuneko irteera hartu eta SARA eta SARAKO LEZEAK ezaupideak segitu.

Autobusez : Donibane Lohizunetik Txik-Txak-ekin.

INFORMAZIO PRAKTIKOAK :

- Bisitari kopurua mugatua dela eta, **aintzineko erreserbak abantailatzen ditugu.**
- 3 doako aparkalekuak badaude auto eta autokarabanentzako.
- Lezearen barnean ez dira onartzen : animaliak, haur karrosak, argazki eta bideo ateratzea. Ostatuan ere ez dira animaliak onartzen.
- Bertan ostatu bat (urte osoan idekia), jatetxe bat (udan idekia), piknikatzeko xokoa eta opari saltegi bat atxemanen dituzu.
- Ez baldin baduzu bisita euskaraz erreserbatzen ahal, urrikrik den itzulpen audioa bat proposatzen dautzugu (telefonoan deskargatuz).
- Bisita aterpean pasatzen da, eta urtean zehar 14° dira lezearen sakonean.

SARRERAK AINTZINETIK EROSI

Erreserba aintzinetik egitea **baitezpadakoa** da eta bisitaren bezpera arte egin daiteke.



INTERNETEN BIDEZ, Sarako lezeen webgunetik :

<https://reservation.grottesdesare.fr>

edo Euskal Turismo Bulegoak* batzen dituen Turismo **BULEGOETATIK.**



NOLA EGIN ?

1. Erreserbatu linean eta hautatu zure bisitaren eguna eta ordua.
2. Lezeetan arribatu zaitez bisitaren ordua baino **30 minutu** lehenago, eta zure berrespena errakutsi ezazu [txarteldegian](#).
3. Horren truke, « Sarako lezeak » txartela ukanen duzu zure bisita gidatuan sartzeko. **Hala !**

SARAKO LEZEAK, HAUXE DIRA ERE :



Naturgune babestua eta egokitua, non parke megalitikoak, piknik gunea eta kafetegi bat atxemen dituzu.



Soinuetan eta argietan egiten den bisita gidatua gure gidari errabiatu batekin !



Zaindua den kobazulo bat : barnean animaliak eta argazki ateratzea ez dira onartuak, gunearen flora eta faunari nahasmenduak gutxitzeko.

2023ko IDEKITZE ORDUTEGIA :


- **Otsailaren 6tik Martxoaren 31ra :**
Astelehenetik ostiralera 14:00etatik 17:00etara
larunbatetik igandera, 13:00etatik 17:00etara.
- **Apirilaren 1etik Irailaren 30era :**
Egunero 10:00etatik 18:00etara.
- **Urriaren 1etik Azaroaren 5era :**
Egunero 10:00etatik 17:00etara.
- **Azaroaren 6tik Abenduaren 30era :**
Astelehenetik ostiralera 14:00etatik 17:00etara
Larunbatetik igandera 13:00etatik 17:00etara.

Hetsia Abenduaren 24an eta 25an.

2023KO PREZIOAK :

- **Heldua : 10€**
- **Haurra** (5-13 urte barne) : 6€
- **Nerabe** (14-17 urte barne) eta **Ikasle** : 8,5€
- **Ahalmen urriko pertsona**: 6,5€ (aurrez kontsultatu otoi)
- **Familia** (2 heldu et 3 haur) : 32€

Prezio murriztuak eta bisita konbinatuak taldeentzat (15 lagunetik goiti) badira. Xehetasunak gure webgunean.



* Turismo bulegoen herriak : Donibane Lohitzune, Urruña, Ziburu, Getaria, Arrangoitze, Ezpeleta, Sara, Azkaine, Senpere, Ainhua, Hazparne, Bidaxune, Bastida, Ahurti, Baigorri, Garazi, Donapaleu, Atharratze-Sorholüze, Maule.